

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

98. zenbakia**Data 2003-05-27****9979 orria**

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

BEIZAMAKO UDALA

Hilerriko erregelamendua. Behin betiko onespena.

Kanposantuko izaera eta funtzionamendua arautzen duen erregla-menduaren behin betiko onarpena.

Beizamako hilerriaren erregimen eta funtzionamendu arautegiaren alda-ketari hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ez denez, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikulua c)azpitalaren azken paragrafoan zehaztutakoaren arabera, zeinari apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehigarri batzuk erantsi dizkion, Udalbatzak hartutako hasierako onarpena, orain behin-betiko bilakatu da. Hori horrela Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70-2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, Orde-nantza horren testu oso osoa rgitaratzen da.

BEIZAMAKO HILERRIAREN ERREGIMEN ETA FUNTZIONAMENDU ARAUTEGIA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Beizamako hilerria zerbitzu publiko bati lotutako jabari publikoko ondasuna da eta, honen titularra Udala izanik, berari dagokio hilerria administratu, zuzendu eta zaintzea, bestelako agintaritza eta organismoen eskumeneko alorretan izan ezik.

2. artikulua.

Hilerriaren administrazio, zaintza eta zuzendaritza eginkizunen ihardueran, Udalari honako hauek dagozkio:

a)Guztion erabilerarako guneak, hau da, pasabideak, lorategiak, zaintzea, garbitzea eta egokitzea.

b)Zerbitzuak antolatzea.

c)Nitxo eta erabilera amankomuneko fosen gaineko ehorzketa eskubideak ematea.

d)Legez jarritako eskubide, tasa eta prezio publikoak eskuratzea.

e)Erabakita dauden edo erabaki daitezkeen neurri sanitario eta higienikoak betearaztea.

3. artikulua.

Hilerria Udalak finkatzen duen ordutegian egongo da jendearentzako irekita, urte sasoi bakoitzaren egoeren arabera.

Hobiratzeak ohiko diren orgutegietan egingo dira eta hildakoaren senitartekoak aldeztatik ehorzketa orduaren berri eman beharko diote hilerriko arduradunari.

II. KAPITULUA. DEFINIZIOAK

4. artikulua.

Araudi hau dela eta, honela definitzen dira hurrengo termino hauek:

—Gorpuak: Giza gorputza, benetako heriotza gertatu eta lehenengo 5 urteetan. Heriotzaren eguna eta ordua Erregistro Zibilean ageri direnak izango dira.

—Gorpuzkiak: Giza gorputzaren hondarrak, materia organikoa desagitzen denean, benetako heriotza gertatu eta 5 urte igaro ondoren.

—Usteltzea: Materia organikoa desagertzea eragiten duen prozesua, gorpuari mikroorganismoek eta beste izaki batzuek erasotzen diotenean gertatzen dena.

—Eskeletizazioa: Gai organikoa desagitearen azkeneko fasea, erabat mineralizatu arte.

—Erretzea edo errauts bihurtzea: Gorputza edo gorpuak beroaren bidez errauts bihurtzea.

—Aldi baterako mantentzea: Usteltze prozesua atzeratzeko metodoa.

—Balsamaketa edo tanatopraxia: Usteltzea eragozten duten metodoak.

—Hozketa: Gorpuaren tenperatura hozteko erabiltzen diren metodoak.

—Erradionizazioa: Usteldura eragiten duten germentak ezabatzea erradiazio ionizagarrien bidez.

—Gorpuzkinak: Bizirik dauden gizakiei ebakitzen zaizkien atalak eta gorpuaren eta gorpuzkinen kontzeptuetan sartu ezin direnak (adb.: Abortua).

—Hilkutxa, leku aldaketarako hilkutxa eta gorpuzki kutxa: Horietako bakoitzerako baldintzak finkaturik dituztenak.

5. artikulua.

Araudi honen arabera, gorpuak bi taldetan sailkatuko dira, heriotzaren arrazoia kontutan izanik:

—I Taldea: Ondokoak daude:

1) Osasunerako arriskua sor dezaketen gaitzen ondorioz hiltzen direnak, adibidez: Kolera, baztanga, karbunkoa, eta osasunaren arloan eskudun diren agintariek adierazten dituztenak, eta,

2) Produktu erradiaktiboek kutsatutako gorpuak.

—II. Taldea: Aurrekoan sartuta ez dauden kausek eraginda hiltzen direnak.

III. KAPITULUA. EHorzketa Eskubideak

I. SEKZIOA. Ehorzketa Eskubideak orokorki

6. artikulua.

Ehorzketa eskubideak kapitulu honek aipatzen dituen emakidak hartzen ditu. Ehorzketa eskubideak Udalak eman eta aitortuko ditu Arautegia honetako aginduekin bat etorriz.

7. artikulua.

Nitxo, lurrazpiko hobiratze, hezurtegi orokorra eta banakako hezurtegiei buruzko ehorzketa eskubideak

Udalaren titularitate baztertzailakoak diren hilerriko hilobien erabilera baino ez dakar berarekin.

8. artikulua.

Nitxoak, gorpuak hilobiratzeko zuzendutako lurzattia, hezurtegi orokorra eta banakako hezurtegiak merkatarizatik kanpoko ondasuntzat jotzen dira. Honen ondorioz ezin da horiekin salerosketarik, trukerik edo inolako eskualdaketarik egin. Arautegi honetan arautzen diren eskualdaketak bakarrik balioko dute.

9. artikulua.

Nitxo, lurrazpian hilobiratzea, hezurtegi orokorra eta banakako hezurtegiei buruzko emakida guztiak instantzia bidez eskatuko dira, okupatuko duen pertsonaren heriotza gertatu ondoren edo gorpuzkinen deshobiratzea egin ondoren. Instantzia Udalari zuzendu beharko zaio eta Alkatea izango da adjudikatzeko eskumena izango duen organoa.

10. artikulua.

Hileta eskubide guztiak dagokion erregistro liburuan inskribatuko dira eta emakidak bidezkoa den titulua eman ondoren egiaztatuko dira.

II. SEKZIOA. Ehorzketa eskubideak banan banan

A)NITXOAK

11. artikulua.

Korrelatiboki zenbatu ondoren, eraikitako nitxoei buruzko ehorzketa eskubidea aldi baterako emango da gorpuak edo gorpuzkinak gordetzeko. Ehorzketa egin behar den unean eta hildakoaren oinordekoek edo ahaideek hala eskatzen dutenean eman eta aitortuko du Udalak.

12. artikulua.

Nitxoen gainean emandako ehorzketa eskubidea 12 urterako izango da, beti ere urte horiek pasatuta, beharren arabera aterako direlarik gorpuak, bere ordena jarraituz. Nitxoak goitik behera eta eskubitik ezkerrean korrelatiboki zenbatuak izango dira eta haietan ehorzteko eskubidea zenbaketa hurrenkera zorrotzari jarraituz emango da.

13. artikulua.

Nitxoaren emakida amaitzen denean eta Udalak nitxoko gorpuzkinak ateratzeko beharra familiari adierazita, titularrak edo oinordetzaren bidez subrogatzen diren pertsonak aukeran izango dute nitxoan dauden gorpuzkinak hezurtegi orokorrera hustu edo eta hezurtegi indibidualean sartzea.

14. artikulua.

Nitxoei buruzko hilobiratze eskubidea pertsona bakarrarentzat izango da.

15. artikulua.

Nitxoan lur eman ondoren, itxi egingo da berehala, hilobiratze eskubidea eskatu duenaren kontura.

B)LURRAZPIAN HILOBIRATZEA

16. artikulua.

Udalak gorpua lurrazpian hilobiratzeko aukera emango du, beti ere enterratzerakoan alde zuzenetik jarritako ordena jarraitu beharko delarik, hau da, goitik behera eta eskubitik ezkerrean. Ehorzketa eskubidea 12 urterako izango da.

17. artikulua.

Emakida amaitzen denean eta Udalak gorpuzkinak lurrazpitik ateratzeko beharra familiari adierazita, titularrak edo oinordetzaren bidez subrogatzen diren pertsonen aukerak izango dute gorpuzkinak hezurtegi orokorrera hustu edo eta hezurtegi indibidualen sartzeari.

C) HEZURTEGI OROKORRA

18. artikulua.

Udalak hezurtegi orokor bat jarriko du familiak aukera izango duelarik, ehorzketa eskubidea bukatuta, nitxoetatik eta lurrazpitik ateratzen diren gorpuzkinak bertan uzteko.

19. artikulua.

Hezurtegi orokorrera pasatzen diren gorpuzkinak suntsitu egingo dira.

D) BANAN BANAKO HEZURTEGIAK

20. artikulua.

Ehorzketa emakida amaitzen denean eta Udalak gorpuzkinak ateratzeko beharra familiari adierazita, titularrak edo oinordetzaren bidez subrogatzen diren pertsonen aukerak izango dute gorpuzkinak banan banako hezurtegien sartzeko.

21. artikulua.

Banan banakako hezurtegi emakidaren epea 12 urterakoa izango da.

IV. KAPITULUA. DESHOBIRATZEA

22. artikulua.

Gorpuak: (heriotza gertatu eta lehenengo 5 urteetan).

1) 13. artikuluko II. Taldean sailkatuta dauden gorpuak deshobiratzeko, bai kanposantu berdinean bai desberdinean birhilobiratzeko, osasun baimena behar da, lehenengo kasuan ohizko hilkutxa eta bigarrenean hilkutxa berezia beharrezkoak direlarik.

2) Goiko atalean zehaztutako gorpuak ezingo dira dehobiratu eta birhilobiratu kasu hauetan:

— Heriotza gertatu ondorengo bi urteetan, gorpua baltsamatua egon ezik.

— Ondorengo hilabete hauetan: Ekaina, uztaia, abuztua eta iraila, ez ohizko kasutan izan ezik eta dagokion osasun baimenarekin.

Gorpuzkiak: (heriotza gertatu eta 5 urte igaro ondoren).

1) Gorpuzkinen desho-biratzeak, kanposantu berdinean birhilobiratzen bada, ez du behar osasun baimenik.

2) Osasun baimena beharrezkoa izango da beste kanposantu baten birhilobiratzen bada.

3) Heriotza gertatu zenetik 5 urteko epea pasatuta giza gorpuaren materia organikoa oraindik desegin gabe balego, deshobiratzea, garraioa eta birhilobiratzea gorpuei eskatutako baldintzetan egin beharko da.

V. KAPITULUA. APAINDURARI BURUZKO XEDAPENAK

23. artikulua.

Xedapen hauen helburua da Hilerriaren eremuan hilobietako apaindurak nola ezarri behar diren arautzea.

24. artikulua.

Xedapen hauek derrigor bete behar dira Hilerrian edozein apaingarri jartzeko garaian.

25. artikulua.

Apaindurak ezartzeko udalaren baimena eskuratu behar da.

26. artikulua.

Ezarri behar diren apaindurek zer ezaugarri izango dituzten azaldu behar da Udalari egingo zaion eskabidean, Arautegi honetan adierazitako eskakizunetara egokitzen direla agertaraziz.

27. artikulua.

Norberaren esku dago apaingarriak eskuratu eta ezartzea, bere kontura izango direlarik.

28. artikulua.

Nitxoetan oroitarrak hilobiaren aurrealdeko horman josiko dira. Oroitarriaren materiala eta kolorea lehendik jarrita dagoenera egokituko da eta bere altuera eta zabalera hilobiaren estalkiaren neurritara egokituko zaizkie.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa: Araudi honek espreski jasotzen ez dituen gaietan indarrean dagoen Hildakoen Sanitate Poliziaren Araudian eta Eusko Jaurlaritzako 267/1992 Dekretuan araututakoaren eta indarrean dauden erregimen lokaleko lege arauen arabera jokatu da.

Bigarrena: Araudi hau, bere testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik jarriko da indarrean».

Beizama, 2003ko maiatzaren 14a.—Idoia Leonet Azkune, Alkatea. (5652)